



Erakunde publiko finantzatzaileak



Departamento de Empleo,
Inclusión social e Igualdad
Enplegua, Gizarte Inklusioa eta
Berdintasuna Sustatzeko Saila



Enplegu eta Gizarte
Politiketak Saila
Departamento de Empleo
y Políticas Sociales



Osasun Saila
Departamento de Salud



Bilboko Udala
Udal Etxebizitzak
Ayuntamiento de Bilbao
Viviendas Municipales



Gizarte Ekintza Saila
Área de Acción Social
Osasuna eta Kontsumoa
Salud y Consumo

Erakunde laguntzaileak



Banco de Alimentos de
Bizkaia
Bizkaiko Elikagaien
Bankua



Itunak, sareak eta foroak

Itunak:



OSASUN MENTALAREN
SAREA



Sareak:



Foroak:



HIRUGARREN SEKTORE
SOZIALEKO ADIERAZLEEN
FOROA

Auzoetako erakundeak eta elkarteak

Otxarkoaga

Merkatari Elkartea, Txirula,
Berdin Otxar, Jai Batzordea, Yo con Otxar

Errekalde

Elkarteen Azoka,
Jai Batzordea, Gure auzoan ez

Uribarri

Uribarri auzolanean, Jai Batzordea: Aldapan Gora, Tanttaka Euskara Taldea

jarrai gaitzazu:



Berdintasuna eta aniztasuna

Aurten, Plan Estrategikoa lantzerakoan, gure buruari galdetu diogu zenbateraino ezarri dugun gure jardunean emakumeen egoera aintzat hartuko duen ikuspegia. Eta onartu behar dugu tarte handi samarra dagoela esaten dugunaren eta egiaz praktikara eramaten dugunaren artean. Ez da nahikoa desoreka eta desberdintasunaren aurka gaudela esatea. Eginkizun horretan, behar da zerbait gehiago, ez da aski emakumeen egoera hobetzeko ekimenak eta haien aldeko zenbait jardun martxan jartzea.

Bizi garen gizarte honetan, mendeak dira gizonezkoen hegemonia indarrean dagoela; botere-harreman menderatzaileetan eta gizonezkoen irudi eta neurri eginiko kulturen nabarmentzen da hegemonia hori. Horrenbestez, hasteko eta behin, ezinbestekoa da gizonen eta emakumeen arteko funtsezko desoreka hori egun ere indarrean dagoela onartzea. Onartzea, azken finean, mendez mende gizarte eta kultura aldetik emakumeei esleitu izan zaizkien eginkizun, espazio eta gaitasunen eraginez, desabantaila-egoera argian daudela beren eskubideak gauzatzeko. Eta, neurri batean, ikuspegi hori oso txertatua dugula gaur egun, horrela bizi izan dugulako eta horrela hezi gaituztelako. Pertsona gisa geure buruaren analisia egin behar dugu, eta aztertu gure jarrera eta jokabideek zenbateraino jarraitzen dioten ikuspegi maskulinoari.

Emakumeek gaitasun gehiago eskuratzeko aukera berak ez izatea ez da kasualitatea; aitzitik, botere-egitura jakin batzuen ondorioa da, egitura horiei esker, pertsona batzuek, gizonezkoek, aukera baitute beren gaitasunak bideratzeko, eta beste batzuek, emakumeek alegia, aldiz, ez dute horrelako aukerarik. Emakumeen ahalduntzea ezin da gaitasunen garapena sustatzeko prozesu indibidualtzat hartu, auzitan jarri gabe testuinguru sozial eta politikoetan indarrean den egiturazko bidegabekeria. Aitzitik, eraldaketa sozial feminista xede duen proiektu baten barnean ulertu behar da ahalduntzea; norbanakoen aldaketak eta ekintza kolektiboa uztartzea da egitasmo eraldatzaile horren helburua,

modu horretara eraldatze sozial eta politikoko proiektuak izango dituzten gizarteak eraikitzeak.

Hori dela eta, feminismoarentzat funtsezkoa da planteamendu kolektiboa, eta horretarako, beharrezkoa da demokratizazio berri bat, orain arte ordezkartzarik izan ez duten ahotsak jasotzeko eta hautaketa sozialeko prozesuetan emakumeek sarbidea izateko, era horretara erakunde berri batzuk osa daitezen. Uko egiten zaio lehendik balio eta interes patriarkalen arabera finkatuta dauden espazioetan “integratuak izateko” helburuari. Ez da jarrera pasibo edo mugatu bat, emakumeek pertzepzio okerrak dituztela dioena; aitzitik, emakumeei iritzia ematea eta beren interesen arabera jokatzeko galarazten dien mugak eta kanpoko baldintzak identifikatzeko da xedea.

Plan Estrategiko berriak indartu egin nahi du ikuspegi feministaren presentzia gure proiektuan. Horretarako, genero-berdintasuna ezartzen du zeharkako ardatz, gure jardun osoan eragina izan dezan. Aintzat hartu behar dugu Bizitegin ez garela hutsetik abiatzen; izan ere, gure esku-hartzeari buruzko datuak emakume eta gizonen arabera bereizten ditugu, eta datu horietan oinarrituta zehazten dugu zer-non daukagun hobetu beharra. Alabaina, galdera ere egin diogu gure buruari: zenbateraino jasotzen genuen datu horien bidez emakumeek jasaten duten indarkeria-egoera konplexuaren berri? Indarkeria horrek hainbat adierazpide ditu, indarkeria fisiko hutsaz harago, eta ez da beti aintzat hartzen eta bistaratzen. Zer neurritaraino onartzen dira, oharkabean edo modu inkontzientean, menderakuntzazko zenbait harreman, zenbait rol mugatzaile eta abar?

Duela pare bat urte, Bizitegi prozesu bat abiarazi zuen bizitegi-bazterketari ikuspegi feministatik erantzun osoa eta espezifiko emateko, egiaztatu ondoren gaur egungo baliabideak gizonezkoen egoerari arreta ematera daudela bideratuta, eta emakumeei emandako erantzuna ez dela batere egokia eta gabeziak daudela. Prozesu hartan agerian geratu zen gaur egungo

ostatu-zerbitzuak oso leku maskulinizatuak direla eta oso bortxazko giroa izaten dela haietan egoera zaurgarrian dauden emakumeentzat. Beharrezkoa da soilik emakumeentzako gune seguruak sortzea, zaintza ardatz harturik, herstura eta ziurgabetasun mailak murrizteko, eta, modu horretara emakumeen autoestimua eta bizi-kalitatea hobetzeko.


Prozesu hartan, oso garrantzitsua izan zen Deustuko Unibertsitateko irakasleen lankidetzat: hainbat adituk ikerketa bat egin zuten, eta lan horrek agerian utzi zuen zer-nolako gabeziak dauden emakumei emaniko tratamenduan eta zein larria den beraientzat etxerik gabeko egoera. Azterlan horren ondorioetan eta Bizitegi elkarteko Etxerik gabekoak esku-hartze unitatearekin eginiko lanean oinarrituta sortu da Borobiltzen proiektua. Emakumeek gidaturiko ekimen horrek espazio ez-mistoak sortzeko beharra azpimarratzen du eta horren alde egiten du lan. Gune horietan esku hartzeko eredu berritzailea sustatu nahi du proiektuak, bazterketa-egoera jasaten duten emakumei aukera berritzaileak eta gaur-gaurkoak eskaintzeko Borobiltzen proiektuaren asmoa da emakumei beren prozesuetan laguntzea, errespetuz eta hurbiltasunez, haien identifikazio kolektiboa indartuz, lokarri egonkor eta seguruagoak sortuz, beste emakume batzuen laguntzarekin. Garrantzitsua da azpimarratzea proiektua emakumeen parte-

hartzearekin diseinatu dela hasiera-hasieratik, emakumeek beren desirak eta beharrianak adierazi dituztela, eta horietan oinarrituta doala eraikitzen egunez egun esku-hartze soziala. Soil-soilik emakumeen eta emakumeentzako espazioak sortzeko apustua da, horietan subjektu aktibo eta protagonista izan daitezen.

Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna lortzeko konpromisoan urrats bat da ekimen hau. Urrats hori emanda, uste dugu sor daitezkeela aldaketak gizarte bidezkoago bat eraikitzeko bidean, aukera-berdintasuna egiazkoa izan dadin. Formula berritzaileak berriz pentsatzeko garaia da, horien bidez baliabideak jasotzea ziurtatzeko eta giza duintasuna bermatzeko; eta horretarako, sozialki oinarri-oinarritzakoak eta funtsezkoak iruditzen zaizkigun zenbait eskubide bideratu behar dira: ostatua, higieena, elikadura eta elkarren arteko lotura, besteak beste. Hortik abiatuta, berriz pentsatu behar ditugu gure formulak eta gure esku-hartzeen ereduak. Eta horretarako, jarrera eta balio pertsonalak aldatu behar dira, eta garai bateko ideiak bertan behera utzi. Bizitegin aldaketa horretan sakondu nahi dugu, aintzat hartuta prozesu geldoa dela, arnas luzekoa, eta jakitun izanda bide horretan ikasi eta arriskatu egin behar dugula. Baina uste dugu merezi duela ahalegintzeak, eta gure ardura dela egitea.

BIZITEGIKO ZUZENDARITZA BATZORDEA





Taldea



E: emakumeak; G: gizonak

NOR GARA

BIZITEGIk 1980an ekin zion bere jardunari, Bilboko Otxarkoaga auzoan, komunitate-lana oinarri zuela. Geroago, 1988an, irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, eta 1997an Balio Publikoko Entitate aitortpena jaso zuen.



"Bizitzea beti aurrera egitea da". Mendizaletasuna, aisialdirako aukera inklusiboa

MISIOA

Gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen alde lan egiten duen elkarte bat gara. Horretarako:

- **Pertsonei lagun egiten diegu beren bizi-prozesuetan**, haien bizi-baldintzak hobetze aldera.
- **Sentsibilizazio-ekintzak** egiten ditugu, gizarte eraldatzeko eta gizarte bidezkoago baten alde **salatzeko**.

IKUSPEGIA

Gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen eta gainerako gizartearen artean dagoen tartea murriztu nahi dugu:

- **Haiei bizi-kalitatea** hobetu ahal izateko baldintzak sortuz.
- Bizi garen **ingurune komunitarioetan harremanak** sortuz, **parte-hartzea** sustatze aldera..
- **Herritarrek** gizarte-bazterkeriari buruz eta hori eragiten duten zioei buruz duten **ikuspegia** hobetzeko ahaleginekin bat eginez.


BALIOAK

- **Berotasunean** eta **maitasunean** oinarritutako **harremanak** sortzea, pertsona bakoitzaren duintasuna errespetatzea errazteko.
- Pertsonen arteko **topaketa** sustatzea, pertsona horiek guztiek bizikidetzako hainbat espaziotan **parte hartzea** ahalbidetzeko.
- **Proiektu partekatu** batean laguntzea, proiektu horrekiko **inplikazio arduratsuaz**.


BIDE 22: PLAN ESTRATEGIKOA

1. ARDATZA.- **Komunitatearen parte-hartzea**, lantzen ditugun gizarteratze-aukeren eta gizarte-eraldaketaren ardatz egituratzaile gisa.
 2. ARDATZA.- **Genero-berdintasuna** gehitzea, gure jarduera-esparru guztiak zeharkatzen dituen desparekotasun-arrakalari aurre egiteko zehar-lerro gisa.
- 1HE.- **Arreta integral baten** aldeko apustua egitea, kontuan hartuta guk artatutako pertsonen duintasuna izango dela horren ardatza, Bidelaguntza Dekalogoko irizpideen arabera.
- 2HE.- Gure lanaren **eragin soziala** areagotzea, hurbileko gizartea giza garapen eta gizarte-garapen handiago baterantz eraldatuz joateko.
- 3HE.- **Proiektu konprometitu** gisa garatzea geure burua, proiektua osatzen duten pertsonen ekarpenetatik, bakoitzak bere arloan.
- 4HE.- **Baliabide** finantzario, material eta antolakuntzakoak modu **jasangarri** eta **arduratsuan** kudeatzea.

BIDE 22



Bidelaguntzarako gure eredua Bizitegin eginiko gogoeta kolektiboko prozesu baten emaitza da. Kontakizun bat da, eta horretan, hitzez nahiz bisualki, 10 printzipio nabarmendu ditugu. Enuntziatu sorta baten bidez azaldu dugu printzipio horietako bakoitza. Hain zuzen, balio-sistema baten hezurdura dira enuntziatu horiek, eta adimenaren, sentimenduen eta emozioen bitartez ulertu behar dira.



Bidelaguntza sozialerako printzipioak erakundeetan, “Egiten duguna gara”. Bizitegi
<http://www.bizitegi.org/eu/estudios-y-publicaciones/>

Pertsonak gara eta pertsoneri laguntzen diegu,
 elkarren artean lokarriak sortzeko prozesuen bidez,
 besteak zainduz eta zain gaitzaten utziz.

Taldean egiten dugu,
 profesionaltasunez,
 gozotasunez, bihotzez,
 elkarren bidelagun izateko ahaleginean,
 elkarrekiko erantzukizunez.

Etengabeko mugimenduan, hobetzeko ahaleginean,
 bizitza oneko proiektuak sustatzeko,
 pertsona bakoitzak askatasunez aukeratutako proiektuak.


Komunitateko kide izanez,
 garatu eta alda dadin lan eginez,
 inklusiboagoa izateko.

Bidelaguntza sozialeko ereduaren printzipioak

- **Taldean:** Elkar onartzea, errespetua, aintzat hartzea eta babes emozionala oinarritzat hartuta; zintzotasunari, elkar entzuteari eta kontrasteari garrantzia emanez; baita ongizateari eta kide bakoitzak hartutako erabakien babesari ere.
- **Zainduz:** Besteak zaintzea eta norbera zaintzea, taldearen babesarekin, giro ona sortuz, entzuketan eta malgutasunean oinarritutako harreman afektibo osasuntsuekin.
- **Lotura:** Beste pertsonen balioak errespetatzea, elkarrekiko interakzioaren bidez. Elkarri laguntzea eta elkarrekiko konfiantza; komunikazioa eta lotura emozionala. Hori guztia pertsona bakoitzak erakundean duen rola aintzat hartuta eta egoera bakoitzaren arabera distantzia eta harreman egokiari eutsiz.
- **Laguntza edo tutoretza:** Beste pertsonaren ondoan jartzea. Aldi baterako harreman dinamiko eta libre baten testuinguruan gertatzen da; bi aldeek eman eta jaso egiten dute, beste pertsona onartuz, hari entzunez eta haren balio eta erritmoak errespetatuz.
- **Profesionaltasuna:** Entzutea, lotura emozionala, aldaketen aurrean zabalik egotea eta elkarriketarako jarrera izatea. Taldean gertatzen da, erakundearen esparruan, eta lan-harreman baten bidez arauturik.
- **Elkarrekiko erantzukizuna:** Guztion onerako nork berea ematea, bakoitzak bere roletik, besteen egin-

kizuna errespetatuz. Nork bere erabakiak hartuz, baina erakundearen kultura hezurmamitzen duten irizpide bateratu batzuetan oinarrituta. Lor daitezkeen helburuak jartzea, baliabide eta bitartekoak modu egokian baloratuz; norberaren erabakien ondorioak onartzea, eta besteenetan inplikatzeko, elkarren onarpenean oinarrituta.

- **Aldaketa soziala:** Balio hauek nabarmentzen dira, besteak beste: aniztasuna, aukera-berdintasuna eta lankidetzak. Aldaketa hori onartzeak berekin dakar sentsibilizazio- eta salaketa-jarduerak egitea, ekin-tzarako proposamen eraikitzaileak eta bideragarriak lantzea eta gure eguneroko jarduna balio horien arabera gidatzea.
- **Komunitatea:** Kidetasuna, identitatea eta onarpena ematen digu. Auzoa da komunitatearen berezko testuingurua. Ingurune horretan parte hartzeak ahalgina eskatzen du eta eragina sortzen du, hala pertsonen gain nola gizartearen gain.
- **Bizitza-kalitatea:** Bizitza zoriontsua izango badugu, aukera izan behar dugu bizitza-proiektu esanguratsu bat aurrera eramateko, gure bizi-balioak eta itxaropenak gidari ditugula. Garrantzitsua da ongizate materialeko gutxieneko maila batzuk izatea, bai eta harreman eta lokarri afektibo osasuntsuak ere.
- **Hobetzea:** Mugitzeko eta bilatzeko jarrera, norberaren identitatean oinarrituta, beste pertsona batzuekin hartu-emanen.



by @muxotepotolobat

Bidelaguntzaren emaitzak

	LAGUNTZA JASO DUTENAK						EGOERA HOBEAN EDO BEREAN DAUDENAK (%)						ZERTAN ARI GARA LANEAN (%)						LORTUTAKO HELBURUAK (%)					
	2017			2018			2017			2018			2017			2018			2017			2018		
	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.
BATEZ BESTEKO OROKORRA	50,2	46,4	47,3	49,5	47,1	47,6	88	90	89	74	94	89	100	100	100	100	100	100	77,4	71,3	72,9	63,0	70,4	69,1
 Ekonomia, lana, bizilekua	50,0	43,6	45,0	49,9	42,4	44,0	95	93	94	87	95	93	75	54	57	63,6	61,2	60,8	75,6	71,7	75,7	74,3	71,9	71,9
 Bizikidetzatza	47,7	44,5	45,2	46,4	44,5	44,9	100	90	93	79	94	91	90	92	92,4	94,8	91,8	92,1	74,7	74,6	74,6	60,4	75,1	72,2
 Pertsona	42,2	41,3	45,5	41,1	43,0	42,6	98	92	93	82	89	89	70	54	58,9	67,5	55,8	58,2	83,0	59,6	66,9	61,2	55,5	58,3
 Osasuna	56,0	53,2	53,8	55,8	54,7	54,9	86	85	86	70	84	83	85	74	78,5	80,5	71,4	72,0	77,5	70,5	72,2	61,8	70,6	69,0
 Gizartea	57,4	50,3	51,9	57,5	51,5	52,8	98	91	93	91	91	92	23	32	30,4	36,4	38,8	37,6	80,9	73,5	74,9	58,3	74,7	71,8

E: emakumeak; G: gizonak

Pertsonak gara eta beste pertsona batzuei laguntzen diegu, elkarren artean lokarriak sortzeko prozesuen bidez.

Bidelaguntza harreman lotesle baten barnean ulertzen dugu; harreman horrek errespetuzkoa izan behar du, aurreiritzirik gabea eta elkarren onarpenean oinarritu behar du. Harreman hori dinamikoa da eta hainbat tesuingurutan gauzatzen da.

Banakako bidelaguntzaren tesuinguruan, harreman estu eta simetrikoa sortzen dugu Bizitegin prozesu bat egiten ari den pertsonaren eta bi profesionalen artean. Harreman horri esker, aukera dugu pertsona bakoitzaren itxaropen eta gaitasunen berri jakiteko eta haietara hurbiltzeko. Tesuinguru horretan, laneko helburuak ezartzen ditugu, haien balio-eskala errespetatuko duten helburuak. **Banakako Planean** jasotzen dira xede horiek.

Banakako Planak aukera ematen digu bidelaguntza-prozesu bakoitza planifikatzeko, horren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko. Horretarako, bizitzaren 5 esparrutan biltzen diren 19 dimentsio hartzen ditugu oinarri:

- **Ekonomia, lana eta bizilekua**
- **Bizikidetzatza**
- **Pertsona**
- **Osasuna**
- **Gizartea**

Bidelaguntza-prozesuetan eskuratutako datuen bidez, hainbat adierazle global landu ahal izan ditugu. Hala, urtero aztertzen eta konparatzen ditugu adierazle horiek, profesionalen eta esku hartzen duten taldeen lana orientatzeko. Adierazle horien bitartez jakin dezakegu:

- Artatzen ditugun pertsonen **batez besteko profila**.
- **Okerrera eta hobera egiten duten edo egoera bertsuan jarraitzen duten** pertsonen ehunekoa.

- Bizi-dimentsio bakoitzean **helburuak** jartzen dituzten pertsonen ehunekoa.

- **Helburu horiek bete dituzten** pertsonen ehunekoa.

Urtero eskuratutako datuak elkarren artean konparatzen dira eta aztertzen dira, eta ahalegina egiten da banakako eta taldekako esku-hartzearen kalitatea hobetzeko eta pertsonen beharizanetara egokitze. 2018ko datuak aztertuta, alderdi hauek dira nabarmentzekoak:

- Egoitza-bidelaguntzan egiten den lan handienetako bat etxeko gaitasunetan autonomia sustatzea eta indartzea da. Helburu hori argi islatzen da banakako planetan, eta, hala, pertsonak saiatzen dira beren gaitasunen neurrira edo horren gainetik jarduten.
- Toxikoen kontsumoarekin loturiko datuak aztertzean, eta kontsumoen dimentsioa harremanen dimentsioarekin eta dimentsio pertsonalarekin korrelazioan jarriki, ohartzen gara batez ere alderdi pertsonaletara bideratu behar dugula lana, kontsumoak eragindako bizikidetzatza-gatazkak murriztera edo kudeatzera, kalte fisikoak eta psikikoak murriztera eta eguneroko bizitzako antolaketari eustera. Alderdi horiek aldaketarako eragile eta dinamizatzaile izan daitezke.
- Intentsitate handiko bidelaguntzan, gure joera da laguntza ematen duenaren begietatik ikustea lana, eta eguneroko bizitzaren antolaketarekin loturiko helburuei jartzea arreta nagusia. Eguneroko bizitzan badira beste helburu garrantzitsu batzuk ere, eta beharrezkoa da horiek aintzat hartzea eta esplizitatzea: emozioen eta harremanen alderdiekin lotura dutenak, hain zuzen (laguntza eskatzea eta laguntza behar dugula onartzea, zer-nolako laguntza nahi dugun adieraztea, bi aldeak gogobeteko dituen laguntza-harremana sortzea).
- Zaintzarekin eta garbitasun pertsonalarekin loturiko alderdiak lantzeko beharra ikusten dugu.

Sentsibilizazioa eta salaketa

Bizitegik gizartean bazterketa-egoeran dauden pertsonen alde egiten du lan. Horretarako, eraldaketa sozialerako **sentsibilizazio**-ekintzak egiten ditugu, baita **salaketa**-ekintzak ere, gizarte bidezkoago baten alde.

- **Sentsibilizazioa**, bazterketa sozialak estigmatizatu egiten duelako, eta baztertuta daudenak desberdin egiten dituelako. Hori horrela izanik, elkarrekin harremanetan jartzen eta elkar ezagutzen laguntzen diguten hainbat ekintza egiten ditugu, hainbat esparrutan (hezkuntzan, artean, auzoan, hezkuntzan), lagungarriak baitira estigma horren zama nabarmen arintzeko.



III Homeless Film Festival (Sentsibilizazioa Zinemaren eta Antzerkiaren bidez)

- **Salaketa**, bazterketa-egoeran dauden pertsonen alde egiten duen bidegabekeriak pairatzen dituztelako. Gizartearen ardura delako inor egoera horretan ez egoteko inguruabarrak sortzea. Hori horrela izanik, salaketa-kanpainak antolatzen eta bul-tzatzen ditugu, batez ere etxegabeek bizi dituzten egoera kaskarrak agerian jartzeko.



Giza Eskubideen aldeko manifestazioa

Bizitegiren laguntza-sarea

ETXERIK GABEKOAK

Eguna joan eta eguna etorri
Bilbon kale gorrian bizi diren
pertsonekin lan egiten dugu.

MENDEKOTASUNAK

Droga-mendekotasuna
edo eritasun mental larriak
dituztenekin lan egiten dugu.

URIBITARTE

83 plaza



BILBAO

ELEXABARRI



4 plaza



5 plaza

SAN FRANTZISKO HERNANI

ERREKALDE



9 plaza



25 plaza

PEÑASKAL



15 plaza



BIZIMODU INDEPENDENTEARI EUSTEKO LAGUNTZA

	plaza kop.	pertsona kop.
(2) IREKI	12	13 (5E, 8G)



EGUNEKO ZENTROAK

136 plaza
226 pertsonari laguntza
(43E, 183G)

Normalizazioa eta birgizarteratzea helburu hartuta, espazioak eta jarduerak eskaintzen ditugu, erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta bertakotasun- eta afektibitate-loturak sortzeko.

	plaza kop.	pertsona kop.
Onartu. Esk. apala	15	66 (6E, 60G)
(2) Errekalde	25	37 (4E, 33G)
(2) Uribarri	20	27 (2E, 25G)
(3) 105	8	12 (7E, 5G)
(2) (3) Errehabilitazioa	14	17 (8E, 9G)
(2) (3) Irumineta	30	36 (9E, 27G)
(2) (3) Zizeruene	24	28 (9E, 20G)

E: emakumeak; G: gizonak

HITZARTUTAKO ZERBITZUAK: (1) Udal-zerbitzua. Bilboko udala (2) Bizkaiko Foru Aldundia (3) Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
2018an HARTUTAKO PERTSONEI BURUZKO DATUAK

OSASUN MENTALA

Arazo nagusizat eritasun mental larriak dituztenekin lan egiten dugu.

URIBARRI



20 plaza

ATERPEA

83 plaza



Oinarrizko beharrianak asetzeko, higieena bermatzeko eta kalteak arintzeko; bai eta etxerik gabekoen kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzeko ere.

plaza kop. pertsona kop.

(1) Udalaren Gaueko Aterpe Zerbitzua 83 431 (60E, 371G)



OTXARKOAGA



76 plaza



56 plaza



MINA DEL MORRO



6 plaza



6 plaza

URAZURRUTIA



KOMUNITATEAN ETA GIZARTEAN ESKU-HARTZEA

pertsona kop.

(1) Kalean esku-hartzeko taldea 499 (84E, 415G)

(1) Hezkuntza-laguntzarako taldea (Elexabarriko Udal Aterpetxea) 648



BIZILEKUA

85 plaza

96 pertsonari laguntza (31E, 65G)

Bizileku duinak eta inguru egoki bat bermatzeko behar diren zerbitzuak eskaintzen ditugu, bizikidetza eta bizi-kalitate ezin hobea sustatzeko.

plaza kop. pertsona kop.

(2) (3)	Etxe-sare babestua	42	45 (14E, 31G)
(2) (3)	Iruminetxeko egoitza	7	8 (1E, 7G)
(2)	Mina del Morro	6	8 (3E, 5G)
(2)	Peñaskal	6	8 (8G)
	Etxegabeentzakoak	11	16 (8E, 8G)

Aukera 18. 2018ko ebaluazioa

1HE. Sakontzea erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetuko dituen kalitatezko esku-hartzean.

- **‘Emakumezko Etxegabeentzako Pisuak’ proiektua**
- **Bizitegin bidelaguntza soziala emateko printzipioak.**
- **Aurkigune**, aktibazio sozialerako komunitate-zentroa. Aurkiguneko jardueretan parte hartu duten auzoko pertsonak: 42 (23 emakume eta 19 gizon). AIO: 8.5

Emaizak:

- Egoera hobean edota egoera berean dauden erabiltzaileen ehunekoa: % 89 (% 74 emakumeak; % 94 gizonak)
- Erabiltzaileek banakako plan orokorraren baitan lortutako helburuen ehunekoa: % 69,1 (% 63 emakumeak; % 70 gizonak)



Aurkigune

2HE. Bultzada ematea salaketa- eta setsibilizazio-ekintzei, gizarte bidezkoago baten eraikuntzan aurrera egiteko.

- **Antzerkia:** 4 antzezlan (Llorona, La Maza, Yo vengo a Ofrecer, No les importamos), 19 emanaldi (ikastetxeak, Homeless Film Festival, Santurzine Jaialdia, Cineclub-Fas, Zentro Zibikoak, Jardunaldiak, etab.). Hartzaileak: 3.000 pertsona
- **World Ganchito:** Ikastetxeak (9 jarduera; 897 ikasle), Unibertsitatea: EHU (80 ikasle) eta Gazteguneak (20 pertsona). Gaiak: Gizarte-bazterketa eta Osasun Mentala
- **Giza Eskubideen aldeko manifestazioa** Bilbon, Amnesty International, Ongi etorri errefuxiatuak, Fekoor, Ale-tu eta Alboan erakundeekin eta Bilboko auzo-elkarteekin batera. 1.000 pertsona baino gehiagok bat egin zuten manifestazioarekin. 28 aipamen komunikabideetan.
- **Fair Saturday:** 3 ekitaldi: Ugaoko Sarea Abesbatza eta Sarea Txiki; Ane Zugaza, Birkir eta Aullidos de Otxar; Arriaga Antzokia. 1.000 ikus-entzule baino gehiago.
- **III Homeless Film Festival:** Antzerkia eta Zinema.



World Ganchito - Homeless Film Festival

1.400 ikus-entzule baino gehiago. AIO: 8.5. Aipamenak komunikabideetan: 23

- **EAPNren Parte-hartzeko Estatuko Biltzarra.** Kana-riak
- **Nazioarteko egunak:** Etxegabeak, Osasuna eta po-brezia

3HE. Komunitatea indartzea gizarteratze-prozesua ga-ratzeko funtsezko bide gisa.

- **Partaidetza komunitarioa:** Auzoetako jaiak, Elkar-teen azoka, Uribarri Eguna, Haurren jardunaldiak, Osa-sunday, etab.
- **Berdintasuna sustatzea**
 - Emakumeen Nazioarteko Egune (martxoak 8) eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Na-zioarteko Egune (azaroak 25).
 - Sentsibilizazio-ekintzak antzerkiaren bidez, Zenba-tu taldearen “Llorona” lanarekin.
 - EAPNren emakumeen aldeko taldean partaide izan ginen.
- **Boluntarioratza sustatzea**
 - **Erabiltzaileak boluntario** programan parte hartu genuen, ONCErekin elkarlanean.
 - **Ikastea eta zerbitzu ematea**, Begoñazpi ikaste-txeko ikasleekin. Euskarari, mugikorrei eta infor-matikari buruzko prestakuntza. 18 ikaslek parte hartu zuten.



Emakumearen Nazioarteko Eguna, martxoaren 8a

- **Praktiketako pertsonak hartzea:** 20 pertsona (15 E eta 5 G). AIO: 9.22
- **Euskara sustatzea:** Euskara Batzordea Bizitegin, euskararen diagnostikoa egin genuen eta Euskaraldian parte hartu.

4HE. Sendotzea bai oinarri soziala eta bai barne egiturak, proiektuak epe luzera jarraipena izango duela ziurtatzeko.


- Langileen, bazkideen eta boluntarioen 6 **asanblada** egin genituen eta 3 **topaketa** (Gabonetan, maiatzean eta inauterietan) Bizitegi osatzen dugun pertsona guztion artean (erabiltzaileak, bazkideak, langileak, boluntarioak eta praktiketako langileak).
- **Prestakuntza:** Pertsonen % 92k hartu zuen parte; batez beste, 38 ordu pertsonako. AIO: 7.2
- Honako hauek bisitatu genituen: **San Martin de Porres Fundazioa eta Arrels Fundació**



Bizitegi elkartearen asanblada: Bide 22 plana lantzen

5HE. Finkatzea bideragarritasun eta jasagarritasun ekonomikoa.

- **Eraitza ekonomiko orekatua.** Sarrerak (3.760.990 euro); Gastuak (3.708.925 euro)
- Zerbitzuen **okupazio**-indizea: %94
- Bilboko Udalak Adineko pertsonen arretarekin partekatutako **Etxebizitzaren Udal Zerbitzua** esleitu zigan lizitazio bidez.



Zerbitzuen okupazio-indizea

6HE. Aurrera egitea kudeaketa-eredu aurreratu eta berritzaile bati esker sektorearen erreferentziazko erakunde izateko bidean.

- **Azterketak eta argitalpenak:**
 - **Bidelaguntza sozialerako** printzipioak erakundeetan.
 - **Bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeei** buruzko Ikerlana egin eta eman genuen argitara. Eusko Jaurlaritza.
- **Ezagutzak eta jardunbide egokiak partekatu genituen:** Jardunaldi hauek antolatu genituen:
 - **"Gizarte bazterkerian dauden emakumeei laguntzea"**, Deustuko Unibertsitatearekin batera. 320 lagun bertaratu ziren. AIO: 8.15. Aipamenak komunikabideetan (23).
 - **"Konpetentzia bidezko kudeaketa"** Hirugarren Sektore Sozialeko Adierazleen Foroaren barnean. Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea. 20 lagun bertaratu ziren. AIO: 7.8

Jardunaldiak eta lankidetzak:

- Austriako St.Pölten Unibertsitatearekin elkarlanean jardun genuen Bilboko gizarte-zerbitzuen berri jakiteko.
- EHUKo udako ikastaroak. Gizarte-bazterketan esku hartzeko ereduak: "Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonekin esku-hartzea" eta "Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen arretarako jardunbide egokiak".
- EAPNren XII. Parte-hartze Topaketa Kanarietan, "Antzerkia gizarteratze-prozesuetarako tresna gisa".

- Buru Osasunean Birgaitze Psikosoziolari buruzko XIII. WAPR Biltzarra. "Buruko gaixotasun larriak izan eta gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen intentsitate baxuko bizitegi-arreta. Ireki Proiektua".
- Formazio eta Topaketa Profesionaleko XVIII. Jardunaldia. EHU. "Ebaluazioa gizarte esku-hartzean".
- Hezkuntzan Kudeaketa Aurreratu taldea. Euskalit "Gizarte ikuspegia".
- Astialdi hezitzaileari buruzko nazioarteko I. kongresua: "Inklusioan aurrera eginez".
- Argia Fundazioaren IX. Jardunaldi Teknikoa: "Gizartearen nire lekua berreskuratzen".
- Patologia Dualeko IX. Jardunaldiak: Patologia dualen diagnostikoa duten pertsonen arreta.



Bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen errealitateari buruzko ikerketa aurkezteko jardunaldia

Txosten ekonomikoa

Lankidetzaz-hitzarmenak eta diru-laguntzak dira diru-sarrera nagusiak. Gastu nagusiak, berriz, baztertuta daudenei laguntzen dietenen soldatei, zerbitzuei, alokairuei eta azpiegituren mantentze-lanei dagozkie.



Gardentasuna. www.bizitegi.org

SARRERAK	€	%
Hitzarmenak eta diru-laguntzak	3.432.507	% 91
Erabiltzaileen ekarpenak eta donazioak	258.922	% 7
Finantza-sarrerak	342	% 0
Beste sarrera batzuk	30.083	% 1
Ekitaldira ekarritako diru-laguntzak eta donazioak	39.136	% 1
GUZTIRA	3.760.990	

SARRERAK 2018



GASTUAK	€	%
Langileen soldatak	2.913.717	% 79
Hornikuntza	156.543	% 4
Jarduerako beste gastu batzuk	545.243	% 15
Inbertsioen amortizazioa	79.367	% 2
Beste batzuk	14.055	% 0
GUZTIRA	3.708.925	

GASTUAK 2018



Kontuen enpresa ikuskatzaileak, Euskoaudit SAPk, egindako txostenean jasotzen denez, urteko kontu horiek zintotasunez erakusten dituzte Bizitegiren ondarea eta finantza-egoera.